

Oporretako
aisialdi
programa

Areso eta Leitzako
haurrentzat da ▶ 7



2005ko aurrekontuak onartu dituzte Tolosako Udalean

INBERTSIOA ▶ «Legealdiko inbertsiorik handiena» egingo dute datorren urtean

GAKOAK ▶ Usabalgo kirol gunea, Alde Zaharra eta Euskal Herri plaza dira

PLANA ▶ Genero berdintasun plana ere onartu zuten herenegun ▶ 2

OLAIA ESKITXABEL



Arrantzale jolasak eta kirolak izan dituzte haurrek

ALTZO ▶ Santillazpi guraso elkarteak antolatu eta Kulki taldeak prestatu zuen ekimena ▶ 5

VILLABONA ▶

Urtebete egin du Urepele elkarteak

Futbitoa eta krosa antolatu dituzte ▶ 4

VILLABONA ▶

Eresargi abesbatzak Errenteriako lehiaketa irabazi berri du

Gaur 19:30ean Eguberri kontzertua emango du Gurea zineman ▶ 4



HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA

UDALA ▶

2005eko aurrekontuak onartu ditu Udalak, bilkuran

«Legealdiko inbertsiorik handiena» egingo dute 2005ean; Usabalgo kirolguneaz gain, Alde Zaharra eta Euskal Herri plazako eraikinak dira garrantzitsuenak

LEIRE MONTES

2005eko aurrekontuak onartu ditu Tolosako Udalak. Herenegun egindako osoko bilkuran, punturik garrantzitsuenaren izan zen aurrekontuen eztabaida. Bateratua (38.419.622 euro), udaletxearen aurrekontua (28.667.000 euro) eta plurinuala jarri zituzten mahai gainean. Bateratua eta plurinuala aho batez onartu zuten, EAren, EAren, EBren, PSEren eta PPren ordezkarien adostasunarekin. Udaletxearen aurrekontuari PSEk eta PPK eman zioten ezezkoa.

Jokin Bildarratz alkatearen esanetan, «2005ean egingo da legegintzaldiko inbertsiorik handiena, %44,5 hain zuzen ere». Inbertsio hori posible izango da aurreko urtetatik aurreratzeko 4.000.000 euro dituelako Udalak; eta, gainera, diru sarrerak egon direlako. «Egun ikaragarriko gaitasuna dugu inbertsiorako, eta aukera aprobetxatu nahi dugu. Horrek ez du saihesten, baina, 2005ean zorra aurten baino handiagoa izatea. Usabalgo proiektuak eta beste hainbat inbertsio baldintzatuko dute hori». Guztira, 28.667.600 euroko diru sarrera izan du Udalak; besteak beste, honako arloetatik: zerga zuzenak (auto zergak, gainbaliok...), zeharkakoak (eraikuntza berriak egiteagatik), tasak, transferentzia arruntak (Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzan), ondasun sarrerak (Tolosa Gasa, errentak, interesak...) eta kapital transferitua (Jaurlaritzak eta Aldundiak emandakoa, inbertsioetarako).

Usabalgo kirolguneak lanez gain, Alde Zaharrak garrantzi handia izango du 2007ra bitarteko plangintzan: 7.250.344 euro inbertituko ditu Udalak, horietatik 830.000 aurten. Besteak beste, Abastosen erabilera ari da aztertzen Erretengibel, eta 2006rako lanak hasita egotea espero dute. Zerkausia berritzeko ere inbertsio garrantzitsua egingo dute aurten. Erretengibel-Toriles etxebizitzaren lanak esleitu daude da-goeneko. Eta Rondilla kalea urbanizatzeko proiektua datorren urtean zehaztu nahi dute. 2007ra bitartean, Oria ibaiaren



Alde Zaharrean inbertsioak egingo dira aurten; Abastosen eta Zerkausian, besteak beste. JOXEMI SAIZAR

2005EKO AURREKONTUAK ▶

Arloak	Euroak	Bataz bestekoa
Pertsonala	5.816.160	%20,02
Funtzionamendu gastuak	6.506.604	%22,69
Diru laguntzak	2.330.094	%8,12
Gastu finantzierokoak	270.579	%0,94
Inbertsioak	12.743.563	%44,45

INBERTSIOAK, LABURPENA ▶

Arloak	2005ean	2004-2007 artean
Alde Zaharra	830.000	7.250.344
Usabalgo kirolgunea	6.125.217	12.316.037
Urteko inbertsio finkoa	1.131.641	4.358.332
Inbertsioak Erretengibel	1.607.200	4.234.600
Bestelako inbertsioak	3.049.505	11.319.362
Guztira	12.743.563	39.478.675

INBERTSIOAK, ZENBAIT ATAL ▶

Gaiak	2005ean	2004-2007 artean
Alde Zaharra	830.000euro	7.250.344 euro
Zerkausia berritzatzea	500.000	1.200.000
Errotaren birgaitzea	-	710.000
RC2, Oria ibaiaren ezkerrekoa	-	1.748.400
Abastos	90.000	1.890.000
Oria ibaiaren presa	-	413.000
Usabalgo kirolgunea	6.125.217euro	12.316.037 euro
Kultur ekipamenduak		
Leidor aretoa berritzea	1.140.000	2.741.001
Euskal Herri plazako kultur gunea	240.000	960.000
Mugikortasuna, irisgarritasuna		
Bidegorria	135.000	780.000

presa eraikitzeak «konpromisoa» hartu du Udalak. Errotaren birgaitzea eta Oria ibaiaren ezkerrekoa berritzea (RC2 eremua) ere jasotzen ditu plangintzak. Alde Zaharreko batzordeari, gainera, «garrantzi berezia» eman nahi dio.

Leidorreko eta Euskal Herria plazako eraikineko kultur ekipamenduek ere badute pisua 2004-2007ko plangintzan. 2005ean finkatu nahi da Euskal Herri plazako kultur gunea: erabilera, taldeak eta jarduerak zehaztu... Eta 2007an lanei ekin. «Dena den, lehenago dirua badago, edo beste administrazioen inplikazioa lortuz gero, ez ginateke ordura arte zain egongo lanekin hasteko».

Usabalgo kirolguneak hartuko du, 2005ean ere, inbertsioeko beste partida garrantzitsua: irailerako lehen fasea amaituta egotea espero da; eta ekaineko kanpoko igerilekuak zabalik. Aparkatzeako 80 plaza gehiago ere jarri nahi dituzte.

Beste hainbat partida

Irigarritasunean 231.000 euro inbertituko dira urtero, 2007ra artean; besteak beste, bidegorri eta mugikortasun planekin jarraitzea ditu xede. Azpiegitura eta komunikazio alorrean, Laskorain kalea oinezko bihurtzea, Amarozeekin komunikazioa hobetzea, auzoel harrera eskaintzea —Bedaioiko ur biltzea, bideak asfaltatzea...—, Izaskungo bidea eta kaleko

Generoen berdintasuna

Herenegungo udalbatzarrean, aurrekontuez gain, berdintasun plana onartu zuen Udalak, eta 2007ra bitarteko plangintzan isla izango du. Generoen berdintasunean lan egiteko 44.430 euro inbertituko ditu. «Langile bat kontratatuko dugu, alkate-tzatik lan egingo duena, gaia oso garrantzitsua delako, eta departamendu guztiei eragiten dielako», azaldu zuen Bildarratzek. Aurreko legealdian, 2001ean —Anton Izagirre (EH) alkate zela— idatzitako lana berrikusi eta ekintzak martxan jartzea da asmoa. Dena den, «norberaren etxetik hasi behar» dela azpimarratu zuten guztiak. ◀

hornidurak (Perco) jasotzen ditu aurrekontuak. Gizarte Zerbitzuetan, ia 3.000.000 euro inbertitu nahi ditu Udalak legegintzaldian lurreamendi berritzea, eta 361.000 euro etxebizitza babestuentzat; nazioarteko laguntzak %9 igoko dira. Gazterria arloak %29eko igoera izango du, eta 18.000 euro gehiago azokek. «Tolosa erreferente bihurtu nahi dugu. Galdutakoa berreskuratzeko ari gara; azkeneko azokak izan dira horren erakusle», adierazi zuen EAko Onintza Lasak. Kulturak %7ko igoera izango du: «Festa giroa jartzen dutenen alde egin nahi izan dugu». 21.000 euro gehiago aurrekusi dituzte Inauterietarako.

Euskararentzat %14ko igoera jasotzen du plangintzak: «Ahozkotasanaren eta bertso-laritzaren inguruan proiektu berria jarri nahi dugu martxan. Ikastetxe guztiek begi onez ikusi dute ekimena. Bestalde, Helduen Heziketa Iraunkorrek zentroarekin eta enpresekin elkarlanean segi nahi dugu».

Aurrekontuak onartzerakoan alderdi guztien adostasuna «oso positibotzat» jo zuen alkateak. EBko Jose Maria Vieitesen iritziz, «ditugun balibideekin egin daitekeen planik onena da. Ados gaude, eta elkarlanean aritu gara. Oreka bilatzea zen gakoak, zerbitzuak hobetzea eta kalitatea mantentzeko». Lasaren esanetan, «egitasmoen isla dira aurrekontuak, hitzetatik ekintzetara

ZUZENKETA ▶

Urtekarian argitaratu den iritzia ez da Kike Amonarrirek idatzia, Kristina Urrutiak baizik.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi;
HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Emakumeen duintasunaren aurka doalako publizitate sexistarik ez!

Emakumeon aurkako indarkeria estrukturala da. Botere erlazio hierarkikoak bultzatzen dituen sistema sozial bati erantzuten dio, emakumea gizonarekiko menpekotasun egoera maila batean bizitzera zigortuz.

Biolentzia, emakume *eredu-garriak* izatera behartuak egotea da. Momentuoro idealak diren neurriak izatea lortzera bideratzen gaituzten telebistako iragarkiak, kaleetako hormetako irudi eta mezuak... hauek denak ere emakumeonganako indarkeriaren beste irudikapen bat gehiago dira.

Dendara joan eta 38 neurria duten praktetan ezin sartuta erosteko zailtasunak izateak ere indarkeria du oinarri.

Etxe barruan eta kanpoan lan egin, bere seme-alabak eta zaharrak zaindu, bikote erlazio egokia daraman emakume eredu-garria ez izateak dakarren presioa ere indarkeria da. Indarkeria da, izaera eta ezaugarri hauek betetzen dituztenak «benetako emakumeak» direla eta gainerakoak ordea ez direla sinestea.

Jendarte honek ezarri eta publizitateak behin eta berriz hauek errepikatu eta erreproduzitu jarraitu beharreko eredu bihurtzen dituen rola, duda izpirik gero ez dadin horrelakoak garelako edo behintzat horrelakoak izan beharko ginetekeela gogorazten dizkiguten rol horiek, indarkeria dira.

Jendartearen aldetik emakumeok sufrizten dugun indarkeriarekiko gaitzespena eta aldatzeko intenzioa badago ere, errealitatea bestelakoa da, kalte handia egiten diguten rol horietara hurbilazari eta egokitzen hartuta den emakume eredu-garri hori izatera bultzatzen gaituzten mezu ezberdinez inguraturik bizi baikara. Mezu hauen bitartekari nagusienetarikoa bat publizitatea da, modu zuzen edo sotila-goto batez iraintzen gaituena eta egungo neskatilak etorkizuneari irainduak izatera daramatzana.

Emakumea gizonetzkoen objektu sexual hutsera mugatzen duen Axe desodorantea dugu adibide, emakumea umetu eta gizonarekiko menpekotasun egoera oso batera azpiratzen duen *Heads and shoulders* ditugu guztiz salagarriak diren iragarkietako bi adibide argi eta garbi.

Gabonen inguruko data haue-tan, bonbardatzen gaituzten jolasen eta jostailuen milaka ira-

garkietan, zaindu, janaria pres-tatu, arropa lisatu, apaindu, ma-killatu... behar zaien panpinen ondoan aurkezten dizkigute neskatilak, etorkizun batean «benetako emakumeak» izatera heltzeko abileziak txikitatik ikasi eta jasotzera bultzatuz.

Mutikoei ordea, armekin jo-lastera, bideojokoetan barnera-turik abentura anitzak bizitzera, arriskatzera, autoen, abioien, motorren, tankeen eta gainerako ibilgailuen funtzionamendua kontrolatzera, eta ausardiarekin gainera espazioaren agintea izate-ra hel daitekeela irakasten zaie.

Zertan uste dugu bihurtuko direla gaur egungo neska-mutilak jasotako mezuak egungo jendartearen rol eta estereotipoak iraunarazteko zuzenduko ba-dira? Zerk garamatza sinisterra emakumeon egoerak hobera egin duela, egun, aldatuko ez den etorkizuna ziurtatzen ari ba-gara?

Enpresa pribatu edota publi-koak izanda atzerritik datorki-gun eduki sexisten kentzea ezin badugu exijitu, gure diruarekin finantzatzen diren komunikabi-deekin egin dezagun.

EITBk ohikotasunez baloreetan guztiz atzerakoiak eta irain-garriak ere diren saiok, lehena-go aipaturiko iragarkiak eta eduki sexista handia duten iragarki-ak egunaren edozein ordu-tan eskaintzen ditu. Gobernuari ez al diogu emakumeonganako jarrera iraingarri honekin buka-zeko bitartekoak jartzea exijitu beharko? Jendarte gaixo eta us-teldu hau iraunarazten baimen-duko diegu neska-mutilei? Non dago, bere funtzioen utzikieren ondorioz belaunaldi osoei, kontra daudela esan eta ustez borrokatzen duten desberdintan eta diskriminazio horretan bizitzera zigortu dituen Emakun-de? Eta zertarako sortu zuen ho-nek Begira, momentuan izuga-rrizko garrantzia eman eta eus-kaldun guztiok zergen bidez mantentzen dugun Iragarki Se-xistaren Behatokia?

Egoera honi amaiera eman behar zaio eta horregatik Bilgune Feministatik Gabonen epeal-dian salaketa egiteaz gain jen-darte kontzientziaztea helburu duen kanpaina bat eramango dugu aurrera. Euskal Herrian egun emakumeok bizi dugun bi-degabeko desberdintasun eta diskriminazio egoera (eta hu-rrengo belaunaldiak sufrituko dutena, ez baditugu behintzat bakoitzak bere erantzukizunak norberaren gain hartzen) gain-ditzaera lagunduko duten publi-zitate eta komunikabideak exiji-tzearen beharra zabaltzea dugu helburu nagusitatz.

OIHANA LOPETEGI ▶ TOLOSALDEKO
BILGUNE FEMINISTAREN IZENEAN

KONTSUMOA ▶

Tolosaldea Garatzen jostailuak nola erosi erakusten ari da

Informazio kanpaina berezia jarri du abian kontsumitzaile bulegoak; kalitatea eta balore batzuk bermatu behar dira

EDURNE AYUSO

Haur askok eta askok Olentze-oren oparia jasoa izango dute jada, baina, oraindik ere, izan-go dira Errege Magoen bisita espero dutenak. Erregeen opa-riak erosteko garaia denez, To-losaldea Garatzenek bere kon-tsumitzaile bulegoaren bidez, jostailuak erosteko orduan jar-raitu beharreko aholkuak za-baldu nahi ditu. Horretarako, *Ezusteakoak?* lelopean abian jarri du informazio kanpaina berezia.

Urtero, sasoi honetan publi-zitate kanpaina itzelak jasaten ditugu eta gurasoentzat oso zeregin zaila izaten da opari egoki bat aukeratzera. Kasu guztietan kontuan izan behar da, jostailuak dibertigarriak izateaz gainera, adimena, sor-mena eta afektibitatea sustatu behar dituztela. Gainera, ko-menigarria da kontuz ibiltzea, produktu askok ez dituzte eta Europar Batasuneko erregla-menduak ezartzen dituzten se-gurtasun neurriak betetzen. Horrez gain, erosten ditugun jostailuak hauraren adinaren arabera izan behar dute, adinaren arabera egin behar da beti aukeraketa. Bestalde, garrantzitsua da haurrak txiki-txikitatik sexu konnotazioak gabe hezitzea, baita, arrazake-ria edo era guztietako bortize-

ria baztertuz ere. Haurtzaroan jasotzen den heziketa eraba-kiorra da gerora begira.

Aukeraketa egokia egiteko, hurrengo aholkuak eman ditu Tolosaldea Garatzenek:

Funtzionamendua. Jostailuen funtzionamendua behar beze-lakoa dela ziurtatu behar da.

Informazioa. Etiketan produk-tuaren izena eta marka azaldu behar dira. Fabrikatzailearen edota legezko aurkezlearen helbidea ere azaldu behar da. Zein adinetako haurrei zuzen-tzen zaien adierazi behar da eta jostailu funtzionalen ka-suan, erabiltzeko instrukzioak eta hartu beharreko arreta neurriak adierazi behar dira. Datu hauek ulergarriak eta ira-kurgarriak izan behar dira.

CE marka. Jostailuak segurta-sun neurriak betetzen dituela eta Europako homologazio fro-gak gainditu dituela jakiteko ezinbestekoa da produktuak CE marka eramatea. Hala ere, tentuz ibili behar da, jostailu batzuk CE marka izan arren, ez dituztelako beharrezkoak di-ren betekizunak betetzen.

Sormena. Garrantzitsua da haurrei sormena lantzen duten jostailuak ematea. Gaur egun, haurrek bakarrik jolasteko

NORA JO ▶

Bulegoak.

- ▶ Tolosa: astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan.
- ▶ Billabona: ostegunetan.
- ▶ Ibarra: asteartean.

Webgunea.

www.tolosaldea.net
Telefonoa. 704 201 202
Ordutegia. 9:30etik 13:30era.

edota ezer gutxi erakusten du-ten jostailuak baino ez ditugu aurkitzen merkatuan. Baina ez dugu ahaztu behar, umeak jo-lasaren protagonista izan be-har duela, beste haurrekin jo-lasten ikasi behar duela. Gai-nera, jolasen bidez, helduen bizitza eta bizitza beru ulertzen ikasi behar du. Jean Chateauk zioen bezala «jola-ten ez da-kien haurra zahar txiki bat da, eta pentsatzen ez dakien heldu bat izango da». Haurren nor-tasuna ere kontuan izan behar da jostailuaren aukeraketa egi-terakoan.

Ordainagiria. Ez ahaztu eros-keta egiterakoan ordainagiria eskatzeaz. Izan ere, kontsumi-tzaileak aldatutaren bat egin nahiez gero beharrezkoa da hau aurkeztea eta dendariak ordainagiria eskatzeko esku-bidea izango du gainera.

iragarki laburrak ▶



Anoeta. 125 m2 eta garajea duen duplex etxebizitza ederra salgai.

Belauntza. 1.060 m2-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belauntza. 225 m2-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioa.

Donostia. 104 m2-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

Donostia. Rodil zeharkalean, apartamendua salgai. Berritua; kanpoaldera.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baseria.

Ibarra. 95 m2-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m2-ko etxebizitza salgai. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

Ibarra. 75 m2-ko pabilioia eta 2.500 m2-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m2-ko pabilioiak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m2-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean 75 m2ko eraikuntza berriko etxea salgai.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m2-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m2-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua. Berritzeko premia.

Tolosa. Triangulo plazan etxebizitza handia igogailuarekin, garajerik gabe.

Tolosa. San Frantzisko kalean, 61 m2-ko apartamendua salgai.

Tolosa. Amaro; 115 m2ko etxebizitza. Igogailuarekin. Berritzeko.

Tolosa. Lokal komertzialak, salmentan edota alokairuan (Gorosabel, lurre, Kale Nagusia e.a.)

ANOETA ▶

Dantza-sokarako entseguak bihar eta astelehenean

Dantza-sokarako entseguetan bulubelarri darraite egitasmoan izena eman dutenek. Bihar, hilak 30, arratsaldeko 19:30ean izango dute hurrengo hitzordua. Ondo-rengoa, astelehenean, urtarriak 3, 19:30ean. Edurkako pabilioietan izango dira entseguak. Oraindik aukeragabe parte hartu nahi dutenek izena emateko, entseguetara azalduz.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Jesusen Bihotzako ikasleen irteera Donostiara

Eguberrietako oporrak hartu aurretik Jesusen Bihotzako LH2ko ikasleak Donostiara irteera egin zuten. Bertan Untzi Museoa eta Gipuzkoa plazako jaiotza bisitatu zituzten goizean. Untzi museoan itsasontzien inguruko informazioa jaso zuten Arratsaldean, berriz, Aquariuma ikusi zuten eta bertako bisita amaizeko kutsaduraren inguruko film bat ikusi zuten.



Jesusen Bihotzako ikasleak Aquariumaren aurrean. HITZA

ASTEASU ▶

Jose Luis Elizegiri egokitu zaio Udaleko saskia

Asteasuko Udalak, Eguberrietan herritarren artean, zozketatzen duen saskia 694 zenbakiari egokitu zitzaion. Zenbaki hori izan zen Olenzerok atera zuena abenduaren 24an. Zenbakiaren jabea eta, beraz, saskiarena Jose Luis Elizegi da. Eguberrietako saski honetan produktu iugari daude: edariak, turroiak eta euskal jatorriko hanbat elikagai.

ADUNA ▶ GIZARTEA

Uztartzaren esleipendun berriak erabaki ditu Udalak

Maria Pilar Kortajarenak eta Asier Aizpuruak izango dute aterpe-jatetxearen ardura

I. GARCIA

Adunako Udalak Uztartzaren aterpe-jatetxearen ustiapena lehiaketaren deialdia egin zuen. Orain, osoko bilkuran Maria Pilar Kortajarena eta Asier Aizpuruari esleitzea erabaki du. Udala eta esleipendunen arteko akordioan azaltzen denez, ostiralean, hilak 31, jasoko dituzte Uztartzako giltzak, eta urtarrilaren 7an, ostirala, zerbitzua ematen hasi daitezke.

Kontratua egiterakoan sinatu beharko dute esleipendunek bertan jaso diren gauza guztien inbentarioa. Atzo bertan egin zuen Udalak aurretik Uztartzaren ustiapenaren ardura zutenekin inbentarioa.

Kontratua amaitzean, esleipendunak Udaletik jaso dituen ondasunak egoera berean itzuli beharko dizkio Udalarari. Erabilerarekin hondatzen edo hausten diren ondasunak, berriz, esleipendunak



Uztartza aterpe-jatetxea. I. GARCIA

konpondu edo ordeztu beharko ditu, kontratua amaitzean Udalarari itzuli diezazkion.

Kontratuak hamar urte iraungo du, akordioa sinatzen den egunaren biharamunetik hasita, eta Udalak ezarriko dituen epeetan luzatu ahal izango da, gehienez berrogeita hamar urte osatu arte.

VILLABONA ▶ KULTURA

Eresargi abesbatzaren Eguberrietako kontzertua gaur Gurean

Abeslari billabonatarrek pasa den igandean Erreteriariko Gabon kanten lehiaketa irabazi zuten federatuen mailan

IMANOL GARCIA

Eresargi abesbatzak, urtero legez, Eguberrietako kontzertua eskainiko du gaur, 19:30ean hasita. Elizan izan behar bazuten ere, azkenean Gurea aretoan izango da emanaldia. Gabon kantak izango dira kontzertuaren protagonistak.

Hogeita hamar bat lagun inguruk parte hartzen du Villabonako abesbatzan. Aurten abeslari berri batzuk animatu dira, baina «gizonezko gehiago izatea ondo etorriko liguke» aipatzen du Juan Mari Iparragirre eta, bide batez, abesbatza irekita dagoela nahi duenak parte hartzeko azaltzen du.

Aurtengoa urteroko jardunaren antzekoa izan du Eresargik. Herriko festa eta ospakizunetan parte hartu du: Santioko



Fraisoron herenegun abestu ondoren mokadutxoa hartzen. HITZA

festetan, Santa Agedan, jubilatu egunean eta orain, Gabonetan. Bestalde, inguruko herrien kultur asteetan parte hartu du, Irurakoan eta Ikaztegietaoan, eta urtero bitan Urgullera joaten dira kontzertuak eskaintzera. Fraisoroko familiaren egunean abestu zuten ere, herenegun.

Erreterian irabazle

Igandean izan zen Erreteriariko Gabon kantuen lehiaketan irabazle suertatu ziren abesbatza federatuen mailan. «Partaidetza ez da oso handia izaten. Aurten, iaz bezala, lau abesbatzak hartu dugu parte, baina oso pozik gaude sariarekin», azaltzen du Juan Mari Ipa-

EGITARAUA ▶

*Adeste fideles.
Gabaren erdian.
Noel-Noel.
Ator-ator.
Asiko naz.
Gaur emeretz mendu.
Olenzero.
Aritz adarrean.
Huayno de Navidad.
Jaun handiak.
White Christmas.
Mesias.
Oi Bethlehem.
Gaur da.*

ragirrek. Gaur, herritarrek bere abesbatza entzun eta urtean zehar egiten duten lana eskertzeko parada izango dute.

ABENDUAK 31, arratsaldeko 7an
Bilabonako Plazatik Zizurkilgi, Euzko Asteigeriaren
Manifestazio ixila
AIZTUNDO FAILARA gaur eta bihar goizeko 11:00
EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA



Alegiako Udala

IRAGARKIA

Alegiako Udalak herriko adinekoei buruzko ikerketa bat egiteko **Gizarte Lanetan Diplomaturak** kontratatuko du bi hilabetetarako. Interesatuak izena emateko deitu **943654768** telefonora **urtarrilak 5a** baino lehen.

ALTZO ▶ KULTURA



Jolasak. Pilotalekuan askotariko jolasak egin zituzten; argazkian, txalupak kulunkatzen ari dira gazteboak. o.ESKIXABEL

Olaturik gabeko itsasoa bihurtu zen pilotalekua

Arrauketa eta arrantzaleen kirolak eta jolasak egiten eman zuten arratsaldea Altzoko hurrek eta gurasoek, Santillazpi guraso elkarteak antolatuta

OLAIA ESKIXABEL

Arrantzaleen munduaren inguruan zertxobait gehiago ikas-teko aukera izan zuten atzo pilotalekura gerturatu zirenek. Santillazpi guraso elkarteak antolatu zuen ekimena.

Egiten zuen hotza nabarmentzeko denborarik ere ez zuten izan Kulki taldeak prestatutako jolasak etengabeak baitziren.

Pilotalekuan, bolak, arrauk, lamia, batelak, arrantza egiteko sareak, arraunean egiteko txalupa... jarri zituzten haurren gozamenerako.

Bakoitzak gustuko zuen txokora jo eta han egoten zen aspertu arte; gero beste nonbaitera edo beste zerbaitekin jolastera jotzen zuten. Hori guztia zuzeneko musikarekin alaituta



Zaintza. Marrazorik ez gerturatzeko zelatan egon ziren batzuk. o.e.

egon zen; Kulki taldeko dinamizatzaileetako batek trikiritixa jotzen baitzuen. Beste dinamizatzaileak, bitartean, jolas desberdinak proposatzen zituen: zaku lasterketa, sokatira...

Kukañaren goikaldere igo eta piraten bandera jarri zuenik ere izan zen. Hanka-hutsik jarri eta segurtasun neurriak hartu ondoren, lurretik distantzia hartzen zuten pixkanaka gazteboak gainontzekoen txaloen artean.

Tartean behin, ikuskatzeko dorretik kanpaia jotzen zuten arriskuaren berri emateko. Hala ere, noizbehinka zurrubiloak sortzen ziren Altzoko itsaso txikian. Arrauk zankak bailiran pilotalekua zeharkatzen batzuk, karrotxo txikietan sartuta paseatzen besteak...

ALEGIA ▶

Irsgarritasuna hobetzeko Plangintza Berezia

Irogailua jartzeko irizpideak jasotzen dira; udaletxean aurkitzen da ikusgai

O.ESKIXABEL

Irsgarritasuna hobetzeko Plangintza Berezia burutu du Udalak. Bertan, bereziki, Larraitz auzoko etxe bakoitzak igogailua non eta nola jarri beharko lukeen jasotzen da. Guzti horrek auzoko egiturari, hala nola, aparkalekuei, espaloietan... nola eragingo duen eta aurrera begira auzoa nola moldatuko den zehaztuko du.

Plangintzaren aurkezpena egin berri da eta horren berri ere eman da; geroztik, galdera eta kezka ugari aurkeztu dira, hala ere. Udaletxetik «plangintza oraindik itxi gabe», dagoela azaldu dute; jendeaurrean (informazio txokoan) erakusgai dagoela gogoratu dute, era berean.

Ur sarea konpontzen

Ur sarea arazo ugari egon dira; azkenaldian, hala ere, hobekuntza handiak egin dira azaldu du Udalak. Ur deposituetatik ateratzen diren 1.100 m³-etatik 330 bakarrak zenbatzen zen; arazo hori konpondu dute eta «orain gehiena aprobetxatzen da».

Klorazio sisteman ere berrikuntzak egin dituzte; sistema berria jarri da. Berrikuntza horri esker «kalitate eta segurtasun gehiago» ematea espero du Udalak.

Aipatutako lanetarako, hau da, ur-ihesak antzematen eta klorazio sisteman 25.000 euro (4.000.000 pezetatik gora) behar izan direla jakinarazi dute udaletxetik.

KIMETZ
GAZTE ARROPA

ZORIONAK
ETA
URTE BERRI
ON!

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

AZPEITIKO IV. SAN SILBESTREA

ESKOLARRAK: 10:30ean
KADETE ETA JUBENILAK: 12:00etan 4.150 metro izango dira.
BESTEAK: 12:00etan 8.300 metro izango dira.

* AURRENEKOENTZAT DIRU SARIAK IZANGO DIRA.
* PARTAIDE GUZTIEN ARTEAN BIDAI TXARTELAK ZOZKATUKO DIRA.

Izen-ematea, 3 euro: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumalá, Getaria, Zarautz, eta Orioko Kiroldegietan, **HITZA**ko bulegoetan edo internet bidez: www.herrikrossa.com (antolatzaleek HITZAra bideratuko dute diru hori)

GUTUN@K ▶



izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Uztaren 842 bozka

Iada 19 hilabete pasatu dira, 842 ibartarren ahotsa isildu nahi izan zutenetik.

Egun hartan iritzia eman zuten herritarren hitza ez zen errespetatua izan, orduan egin zitzaigun iruzurrak indarrean jarraitzen duelarik gaur egun ere.

Eskubide zibil eta politikoak desagertarazi eta apartheid gordina ezarri zenetik 19 hilabete bete diren honetan badira batzuk udaletan demokraziaz berrezartzearen 25. urteu-

rena lotsarik gabe ospatzen dutenak. Zoritxarrez, gaur da eguna, 842 herritarren borondateari muzin eginez PNV, EA eta IU-k aurrera ordez atzera jotzen dutena.

Gogoratu behar dugu ekainaren 16an eginiko osoko bilkuran hiru talde hauek hartutako konpromisoa udal instituzioen eremuan pertsona, gizarte-sektore eta udalerriko politikoz guztiek, inolako salbuespenik gabe, parte hartzeko duten eskubidea defendatzeko hartu dugun konpromisoa berrestea.

Gatazka politiko guztien konpromisorearen gakoak, herriari hi-

tza eman eta herriari adierazitakoa errespetatzean datzala jakinik, 2003ko maiatzaren 25an herritarrek aukeratu zutenaren araberrako ordezkari-tza exijitzen dugu (5 zinegotzi). Herriaren hitza horixe izan zelako, ez besterik.

Hau guztia gauzatu daiteke LOREG 182.2 artikulua eman diten aukeren bidez, borondate politikoa baitan uzten dituelarik irtenbideak.

Herrian jarri ditugun kartelekin, honako hau aldarrikatu nahi dugu:

PNV, EA eta IU alderdiei, hainbat aldiz adierazi bezala, herri honen zati handi batek

pairatzen duen *apartheid* politikoaren aurrean, ausardiaz jokatze eta hainbat aldiz aipatu den LOREGaren 182.2 artikulua bidez, herri honen borondateak aukeraturiko hautesien karguak errespetatzeko exijitzen diegu. Bide hori gauzatzeko hasi dadin, ez dagozkien karguak dituzten hautetsiei, beraien dimisioa aurkezteko deia egiten diegu (Luis M. Eceiza PNV, Jesus M. Artetxe IU).

Prozedura hau guztia ahalik eta erraz eta azkarren eman dadin, gure esku egon daitezkeen bitartekoak jartzeko konpromezua hartzen dugu.

UZTA PLATAFORMA ▶ IBARRA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930**GARRAIOAK**

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK**Gaur.** Olarreaga J., Martin Jose

Iraola 10 (Tolosa). 943 672438

Erbiti O., Lizarraga 7, (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

BERASTEGI ▶ GIZARTEA



Ekitaldi ugari antolatzen dituzte Urepele elkarteok. HITZA

Futbitoa eta krosa urteurrenean

Urepele elkartearen urteurrenean hainbat ekitaldi antolatu dituzte

IÑIGO TERRADILLOS

Berastegiko Urepele elkarteak bere lehenengo urteurrena beteko du bihar eta hori dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Bihar, Urepele gazte elkarte-ko kirol taldeak antolatuturik, 18:30ean futbito partida jokatuko dute herriko gazteek helduen aurka. Partida honen ondoren, Urepele elkartearen bilduko dira bazkideak *lunch*-a izango baitute zain.

Gainera, urtean zehar ateratzen joan diren argazki ugari dituzte prestatuturik elkartearen

bertain 2004an antolatu dituzten ekitaldi guztiekin, urteari erreparua egin eta pasatako une politik berriro gogoratze-ko.

Bestalde, etzi, lehenengo San Silvestre kros herrikoa egingo da. Elkarte-ko kirol taldeak antolatu du ekitaldia. 18:00etan aterako dira izena eman duten herritarrek eta 5 kilometroko buelta lau aldiz egin beharko dute. 43 lagunek eman dute izena eta hauek trofeoak, afaria, dirua edo bestelako hainbat sari irabazteko aukera izango dute herrian eskaini duten laguntzari esker.

IBARRA ▶

Ohiko osoko bilkura egingo da gaur

Gaur 17:00etan osoko bilkura egingo da.U.A.11 jarduera unitateak eta ondoko urubak osatzen duten eremuari buruzko arauen aldaketa puntuala eta hilerri-zerbitzuaren kudeaketarako kontratuaren esleipenari buruz hitz egingo da besteak beste.

IBARRA ▶



Txalaparta doinuak zabaldu zituzten herriko plazan. HITZA

Olentzaroren urteroko bisita

Ibarrako korua eta herritarrek abesten aritu ziren, txalaparta doinuak entzun ahal izan ziren eta Olentzarok Ibarrako plazan bildu ziren herriko gazteenei opariak eman zizkien.

IBARRA ▶

Oiartzuarrak irabazi zuen Iruineara apostua

Orain gutxi Haitzetanraju elkarteak antolatutako Iruinearako apostua Xabier Bainera oiartzuarrak irabazi zuen. Egun polita igaro zuten, apostua amaituta bazkarian bildu baitziren bertan.

BERASTEGI ▶

Askaria bihar Gaztainondon bazkideentzat

Urtero bezala, abenduaren 30an 18:00etan askari batera gonbidatzen ditu bazkide guztiak Berastegiko Gaztainondo elkarteak. Askari honetan urte osoan zehar egin dituzten ekitaldi desberdinen berri izango dute animatzen direnek.

IBARRA ▶

Antzerkia eta bideo emanaldia gaur eta bihar

Kixka taldearen *Bolaluma* emanaldia izango da gaur eta bihar *Euriaren seme-alabak* bideo emanaldia izango da ikusgai. Kultur Etxean izango dira bi saioak 11:00etan.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Soinu ekipoa. Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 674806/943 117738 telefono zenbakietara.

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 691933.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Osasun zerbitzua eta euskara

Herri euskalduna dugu Leitz, nagusiki euskaraz bizi dena. Euskaraz bizitzeko ahalegina aspaldikoa da hemen, eta begibistakoa da gainera: Leitzako Udala UEMAKo partaidea da, eskolan eta institutuan ikasle guztiak euskaraz ikasten dute, bertako komunikabideak (irratia, egunkaria eta aldizkariak) euskaldunak dira, herrian antolatzen diren ekitaldi publiko ia guztiak euskaraz egiten dira...

Eguneroko bizitzan euskara erabiltzen dugu, beraz, eta horretarako eskubide osoa dugu.

Zoritzarrez, ahaleginak ahalegin, zenbait tokitan eta momentutan euskara erabiltzeko eskubide hori urratu egiten zaigu. Oraingoan, esaterako, osasun zerbitzuan; izan ere, Leitzako osasun etxean mediku erdalduna dugu, eta, jakina, ezin dugu berarekin euskaraz egin. Ba omen dugu administrazioarekin euskaraz egiteko eta euskaraz atendituak izateko eskubidea, baina praktikan ezin dugu. Eta urraketa hori salatzeta da idatzi honen helburua, hain zuzen ere.

Garbi utzi nahi dugu, nolahi ere, salaketa hau ez dugula osasun zerbitzuko langile batengana zuzentzen. Hizkuntza eskubideak urratzea, kasu honetan bederen, administrazioa eta Osasunbideko ardu-

radunen erantzukizuna da, haiek baitira deialdiak egiten dituztenak eta lanpostuen horniketa antolatu eta erabakitzen dutenak. Lanpostu jakin baten inguruan ari gara, baina ez pertsona jakin baten inguruan.

Arazoa, labur azalduta, honakoa da: Leitzako osasun etxean lanean ari diren mediku etako bat erdalduna da, eta ezin ditu herritarrak euskaraz atenditu. Horrek bi eratako ondorioak dauzka, gutxienez:

1.- Hizkuntza eskubideen urraketa: medikuarekin euskaraz egin nahi duten herritar guztiak eskubide hori zapuztu egiten zaie; nahiz eta legeak berak onartutako eskubidea izan, ezin da praktikan gauzatu.

2.- Komunikazioaren kalitatea eta ziurtasuna: Leitzako herritar gehien lehen hizkuntza euskara da, eta huraxe da komunikatzeko ziurtasun eta erraztasun handiena ematen diena. Batzuen kasuan (adineko zenbait pertsona eta haurrak) ia hizkuntza bakarra da. Kontuan izanda medikuarekin harremanetan ahozko komunikazio ona oinarritzkoa dela, medikua erdalduna izateak arazoak sor ditzake: ongi adierazi ezina, deserosotasuna, gaizki ulertuak...

Hainbeste urtez eta hainbeste aldiz osasun zerbitzu euskalduna eskatu ondoren, ulertezina gertatzen da gaur egun, oraindik ere, horrelakoak jasan behar izatea. Ez dugu deus berezirik eskatzen, ez dugu

besteak baino gehiago izan nahi. Besterik gabe, erdaldunek duten eskubide berbera nahi dugu: gure medikuarekin gure hizkuntzan hitz egin ahal izatea, eta gure hizkuntzan atendituak izatea.

Gertaera larria iruditzen zaigu, eta larritasun horrekin salatu nahi dugu. Horretaz gain, Osasunbideko arduradueni berehalako konponbide bat aurkitu dezaten eskatzen diegu.

LEITZAKO EUSKARA BATZORDEA,
DENOK BAT GURASO ELKARTEA,
AMAZABAL GURASO ELKARTEA,
KARRAPE IRRATIA,
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ,
KULTUR TALDEA,
AURRERA ELKARTEA,
IKA EUSKALTEGIA,
EUSKARA ZERBITZUA ▶ LEITZA

AISIA ▶



Aspertu egiten direla ezin esanzen dute behinik behin oraingoan. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Euskara Zerbitzuak ohi duenez, Eguerritako oporraldirako aisi-programazioa antolatu du eta gaurtik bertatik hasita, Lei-

tzako eta Aresoko gaztetxoek, denbora non onpleatua izanen dute.

Zerbitzu honek deitutako aisialdirako programen lehiaketa irabazi ondoren—bost talde

Aisialdiko egitarauari ekin diote jada Areso eta Leitzako umeei

Euskara Zerbitzuak antolatuta, hiru sustatzaile eta begiralerekin ariko dira jostaketan eta esku-lanetan

aurkeztu ziren eta Erleta eskolako enpresaren esku egon da erabakia—, Maria Azpiroz, Amagoia Bizente eta Arantxa Gogortza gazteek osatutako hirukoa izanen da begirale ez ezik, dinamizatzaile ere. Besteak beste, eskulanetako tailer desberdinak egiteko aukera izanen dute bertara joan diren haur zein

gaztetxoek, noski, jostaketarako beta ere izanen dutelarik, nahiz barrenean, nahiz kanpoan, giroak laguntzen badu, beti ere.

Horrela, gaurkoaz gain, etzi 31 eta hurrengo hilaren 3 eta 5ean, Leitzan izanen dira; bihar eta ilbeltzaren 4ean, berriz, Areson. 10:00etatik 13:00tara-

ko dago deialdia egin, 4 urte-tik hasi eta 11-12 urte bitarteko nahi duen guztiarentzat, Aresoko udaletxean edota Leitzako Karrapean. Ekintzaren arabera, Leitzako udaletxeko aretoan ere ariko dira.

A dinaren arabera taldeak egin eta bakoitzak dohakion ekintza izanen du zain.

hitza txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

ILUAPAINEDIA
honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY
KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 29a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzasetea, Adura, Albitur, Alege, Alkiza, Alzco, Amerieta, Aneta, Bakarran, Belantza, Berastegi, Etxain, Herrialde, Itarra, Inza, Lantzi, Luchana, Luartak, Omeñaca, Ome, Tolosa, Wiltona, Zuzaki
 besterik: Leizaldekiko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurjaritza Kultura Salla

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzena

9

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Kixka taldearen *Bolaluma* emanaldia. 11:00etan Kultur Etxean.
Irura. *Alfonbra magikoa* ipuin kontaketa ikastolan 17:30ean.

Irura. Ludoteka eta liburutegia irekiko da, 11:00etatik 13:00etara.

Leitza. Umeen aisialdiko egitaraua Karrapean 10:00etatik 13:00etara.

Tolosa. Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikia India eta Saharako eskolen alde. Kultur Etxean 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Tolosa. Gabonetako Haur Parkea Beotibar pilotalekuan 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 20:00etara.

17:00etan, herri kirolak.

Tolosa. I. Gazte Astea. *Skate* erakusketa eta hockey Pakon 17:00etan.

Tolosa. Tolosaldeko Gurutze Gorriaren lehen laguntzen ikastaroa urtarrilaren 10etik 22ra. 30 ordu, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. Informazioa: 943 674888 eta 647 371529.

Villabona. Eguberrietako kontzertua Gurean Eresargi abesbatzak. 19:30ean.

ERAKUSKETAK

Hernalde. Luis Laskurain. Koadroak. Ostatu taberna.

Tolosa. Txixi Orbeago. Erretratoak. Lanbroa.

Tolosa. Alberto Letamendi. Koadroak. Fronton.

Tolosa. Rufino de Toro. Koadroak. Sorron denda.

Tolosa. *Sudurrak. Naturako usain gozoez* Aranburun.

KIROLAK

Tolosa. Eguberrietako XXIII. Shanti Torneoa Berazubi kiroldegia. 9:30 Zazpi bi-Koskis (F-A), 10:15 Samaniago-Anoeta (F-A), 11:00 Isastegi-Anoeta (A), 11:45 Argysan-Tigre txikiak (A), 12:30 The tigre-Uzturpe (A), 13:15 Shanti-Rayos (A), 14:00 Laiet-Olazabal (B), 15:00 Uguro-Anoeta A (B), 15:45 Aker urdin-Txinparta (B), 16:30 Montxi-Azkar (F-B), 17:15 Tornados-Los Tibus (C), 18:00 Marrazos-Laiet (C), 18:45 Laskorain-Zuloaga txiki (C).

Musika eta ipuinak

TOLOSA ▶ Peio Añorga ipuin kontalaria Hirukide Jesuitinetan izan berri da; Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleek kontzertua eskaini berri dute



Akordeoi ikasleen taldeak txalo ugari jaso zituen bere emanaldiaren ondoren. EDURNE AYUSO



Peio Añorga ipuin kontalaria haurren interesa eta arreta piztu zuen Hirukide Jesuitinetan. HITZA

ERREDAKZIOA

Opor garaia eta opor aurreko garaia kultur ekitaldiak antolatzeko aprobetxatzen dute ikastetxeek. Musika emanaldiak, antzerkiak, jaialdiak, ipuin kontalaria, festak... izaten dira abenduko garai honetan. Gaur orri honetara lehengo astean izandako horrelako bi kasu dakartzagu: Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolan eta Hirukide Jesuitin ikastetxean izandakoak. Bi emanaldiak klaseko azken egunean izan ziren, abenduaren 23an.

Musika eskolan akordeoi eta abesbatza ikasten ari diren ikasleek kontzertua izan zen. Talde asko pasatu ziren ezzenatokitik, txikienetik hasi eta handienetara. Jende ugari —guraso asko tartean— bildu zen musika eskolako aretoan musikari txikien saioa txalotzeko.

Jesuitinetan berriz, Peio Añorga ipuin kontalaria ezaguna izan zen ikastetxe haur txikiei ipuinak kontatzen. Egin zituen saio guztietan ikasleak aho zabalik utzi zituen kontalaria bere istorioekin. Hurrengo baterako zain daude.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Joaquin eta Elvira. 50. urtemuga. Zorionak senide, iloba eta Amaier birbilobaren partetik.



URTE ASKOAN

Jesusa Garziarena (Berastegi). Gaur 71 urte. Muxu handi handi bat Arantza, Leire eta Juanjoren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaiaberriak... zorianzako etorri:

HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
 Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!